



ataria

2019-11-08
1.140. zenbakia
107,6 fm
www.ataria.eus

Ehun urte hankei eraginez Behobiatik Donostiara

SHUYANA

EDERGINTZA



Tolosa&Co
txartelarekin ordaindu
hiru hilabetetan
interesik gabe

Azaroak 11tik 25era bitarte
laser depilazio eskaintza



INGLEAK

5 saioko bonua
300€



BESAZPIAK

5 saioko bonua
195€

Eстетika:

Eskolapioetako lorategiak 3, 1A
Telefonoa: 943 675 489

Denda:

Korreo Kalea, 1
Telefonoa: 943 671 468

shuyana.com

Emakumeak Teherango Azadi estadioan lehen aldiz, 40 urtean

Internet bidez salgai jarri zituzten emakumezkoentzat 4.000 sarrerak bost minutuan agortu zirela esan zidaten Teheran-era iritsi nintzenean. Lau egun beranduago Azadi estadioan ospatuko zen Iran-Kanbodia partidua ikusteko aukerarik gabe geratu nintzen, pena, dudarik gabe egun historikoa izango zen hura. 40 urtean lehen aldiz emakume kopuru txiki batek futbola harmailetatik ikusteko aukera izango zuen. Ordurarte bi aldiz sartu ahal izan ziren estadiora baina gonbidapen berezi batekin soilik. Gobernu iraniarraren neurri berri hau ez zen kasualitate hutsa izan ordea, hilabete bat lehenago Sahar Khodayari neska gazteak bere buruaz beste egin zuen, poliziak gizonez moztarotuta estadiora sartzen harrapatu ondoren. Epaitegian ezarri zioten kartzela zigorra ezagutu eta bere buruari su eman zion. Nazioarteko ko-



URA ITURRALDE
ARGAZKILARIA

munitatearen haserrea eta bertakoen protestak lasaitzeko asmoz beraz eman zitzaizen emakumei partidua ikusteko baimena. Baina noiz arte? Galdetzen genion

nik eta nire lagun iraniarrek geure buruari. Futbol partidu bat ez omen da emakume batentzako giro aproposa, halaxe dio gobernu iraniarrak.

Eguna iritsi zenean, bi ordu lehenago iritsi nintzen Azadi estadioko kanpokaldera gutxienez giroa gertutik ikusi nahiean. Izugarria, hunkigarria... Emakumeak bandera eskuetan hartuta, aurpegiak margotuta, oihuka. Munduko telebista guztiak nituen nire alboan eta polizia ere gertu... Emakume argazkilariek debekatura zutela sarrera ere esan zidaten. Ordubete igaro zenean polizia bat gerturatu zitzaidan esanez sarrerarik ez banuen alde egiteko, eta nik horixe egin nuen ar-

zoetan sartu baino lehen.

Nire gelara bueltatu beharrean ordea Football House kafetegira joan nitzen partidua gozatzera. Hortxe nire harridura aurpegia estadio erdi hutsik zegoela ikusi nuenean telebistan. Emakumezkoen harmailak beteta, inguru guztia hutsa eta urrutira gizonezkoen harmailak. Argi geratu zitzaidan gobernu iraniarrak behartuta baimendu zituela emakumeak, ez zituela bertan nahi.

Pantomima hutsa.

Gobernu iraniarraren neurri berri hau ez zen kasualitate hutsa izan ordea, hilabete lehenago Sahar Khodayari neska gazteak bere buruaz beste egin zuen, poliziak gizonez moztarotuta estadiora sartzen harrapatu ondoren

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 304346 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

bai

zehitu eta
hura eskatzen

Bikain

Tolosaldeko gizarte eragileak

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Fortuna K.E.



Tolosako Gure Kaiola elkarteak aurkeztu dute aurtengo Babarrunaren Festa; aurtengoa XXXIII. lehiaketa izango dute. I. URKIZU

Iaz baino gehiago, eta hobeia

04

Aurkeztu dute Tolosako Babarrunaren festa, eta haren osagai guztiekin; datorren ostegunetik igandera izango da

Itzea Urkizu Arsuaga

Garai batean ukuilu izandako txokoa sutondo goxo bat du, orain, Gure Kaiola elkarteak. Mahai zapiak, platerak eta lapikoak irudi idilikoa osatzen dute bertan, eta babarrun usaina ia imajinatu egin daiteke. Bada, horrelaxe aurkeztu dute aurtengo Babarrunaren Festa. Datorren ostegunetik igandera izango da eta, beti bezala, perla beltza izango da hitzordu guztien erdigune.

Urte urte berritzen eta indartzen joan den festa da udazkeneko uztaren bueltakoa, eta iazkoak errekor guztiak gainditu zituen, Euskal Jaiaren aparrekin. Aurten giro horri eta bertako produktuaren gorakadari eustea izango da, festaren bueltako eragile guztien gogoa.

Eta, Tolosako Babarrunaren Elkartearentzat, urte berezia izango da, gainera: 25. urteurrena ospatzen ari dira. Xabier Goikoetxeak elkartearen hastapeak ekarri nahi izan ditu gogora, 1994ra begira, eta Jose Ignacio Telleria, Patxi Aldasoro eta Marti Mantxo aipatu ditu. Ekoizleei begira, berriz, emakumeei jarri nahi izan die fokua, «betidanik egon izan baitira lotuta, emakumeak eta ba-

barruna». Horrela, Mari Karmen Iradiren lana errekonozitu nahi zuen du, besteak beste.

Mende laurdena pasatu baldin bada ere, elkartearen helburua ez da aldatu hasieratik hona, eta beren produktuen kalitatea izan dute beti jomugan. Garai berrietara egokituz, ordea, «poltsa berezituarekin hasitakoa» asko garatu dela azaldu du Goikoetxeak.

Dena den, elkarlanean aritzeko gaitasuna nabarmendu du guztiaren gainetik, eta albiste bikain bat eman babarrunazale guztiei: «Aurtengoa iazkoa baino hobeia atera da. Iaz 16.000 kiloetara justu iritsi ginen, eta aurten 20.000 baino gehiago izango ditugu».



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Uztaren festa gorena

Tolosako Babarrun Kofradian errelebo aldaketa gertatu zenez geroztik, Euskal Jaiak bere tarte hartu du Babarrunaren Festan. Horrela, iazko arrakastaren ondorengatik, aurten egitura antzekoa izango du larunbata.

Horren aurretik, ordea, beste bi hitzordu ere prestatu dituzte, Imanol Zubelzuk azaldu duenez. Bata *Pul pul* jardunaldi gastronomikoak beteko du, aurten ikastaro formatuan: «Sukaltalka espazioan izango da, doan, azaroaren 14an, eta bertako produktuekin erreteak prestatuko dituzte, Javi Riverok eta Gorka Ricok». Izen-emate hurrenkera arabera beteko dituzte 15 lekuak, eta izena *komunikazioa.tbk@gmail.com* helbidean eman beharko da.

Kofradiako ohorezko kide berriak,

berriz, ostiral iluntzean izendatuko dituzte, eta Ane Gabarain aktorea, Tolosa Kantari eta Fronton jatetxeko lau zerbitzari izango dira omenduak.

Lehiaketa, ezinbesteko zita

Gure Kaiolako elkarteak kideak baserri baserri joaten ziren babarrun lakariak erostera, lehiaketarekin hasi zirenean; kilo 500 pezeta ordaintzen omen zuten hastapen haietan. Orduz geroztik aldatu dira gauzak, baina igandeko lehiaketak ezinbesteko zita izaten jarraitzen du askorentzat.

Aurten ere parte hartzaile berriak lehenetsiko dituzte. Elkartean bertan, 600 859 683an edo *gurekaiola@hotmail.com* helbidean eman daiteke izena. Igandeko bazkari txartelak ere salgai daude, bide beretan.

EGITARAUA

AZAROAREN 14A, OSTEGUNA

18:00. Sukaltalka espazioa, Zerkausi kalean, *Pul pul* jardunaldi gastronomikoa. Bertako produktuak platerara izenburupean, sukaldaritza ikastaroa eskainiko dute Ama tabernako Javi Riverok eta Gorka Ricok. *Informazioa albistean.*

AZAROAREN 15A, OSTIRALA

19:30. Tolosako babarrunaren ohorezko kideen izendatze ekitaldia, udaletxeko pleno aretoan. Ekitaldi irekia izango da.

AZAROAREN 16A, LARUNBATA

06:30. XXXII. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketaren hasiera, Trianguloa plazan.

08:00. San Blas elkarteak antolatuta, XXVII. Odolki Lehiaketaren hasiera, San Frantzisko pasealekuan.

09:00–14:00. Azoka berezia Trianguloa plazan.

10:15–13:00. Euskal Herriko XI. Frisoi Txapelketa, Ferialekuan.

11:00. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako epaimahaia lanari ekingo dio, Trianguloa plazan.

11:00. Dantza ikuskizuna, Udaberri dantza taldearen eskutik, Trianguloa plazan. Ondoren, kalejira egingo dute, Tolosako kaleetan barrena, Bentazaharreko Mutiko Alaiek lagunduta.

11:15. Tolosako Erraldoi eta Buruhandiak Trianguloa plazan.

12:00. Kofradiaren eskutik, babarrunak dastatzeko aukera, Trianguloan.

12:15. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako sari banaketa, Trianguloa plazan.

12:45. XXVII. Odolki Lehiaketako sari banaketa.

13:00. Euskal Herriko XI. Frisoi Txapelketako sari banaketa.

14:30. Tolosako elkarte eta tabernetan babarrun jateak.

18:00. Oihana Iguaran eta Agin Laburu bertsolariak Beti Alai jatetxeko balkoitik, bertsotan.

18:30. Jainekin txaranga kalez kale ibiliko da, Maria Luisa Agirre doktorearen plazatik hasita.

19:15. Joxe Elorza eta Iñaki Larrañaga trikitilariak Orbela tabernako balkoitik. Ondoren, kalejira egingo dute Euskal Herria plazara.

20:00–22:00. DJ Txurru Euskal Herria plazan.

23:00. Gozategi Plaza Berrian.

00:30. Jainekin txaranga kalez kale, Plaza Berrian hasita.

AZAROAREN 17A, IGANDEA

08:00. Gure Kaiola elkarteak antolatuta, XXXIII. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoaren hasiera, Trianguloan.

13:00. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoko epaimahaia bere lanari ekingo dio, Trianguloa plazan.

14:30. Herri bazkaria Zerkausi. Txartelak salgai Gure kaiolan.

16:30. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoko sari banaketa, Zerkausi.

Danbatekoa

Feminismoak ez zaitu inoiz epel utziko. Barruak mugituta etorri gara asteburuan izan ditugun Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetatik. Emakume arrazializatuak argi esan digute: «Zuek, emakume zuriak, gu zapaltzen ari zarete. Eta zuenganako neurriak hartu beharrean gaude. Esaterako, espazio ez-mistotak, emakume zuririk egongo ez den espazioak». Eta Landakok dar-dar egin zuen. Eskerrak ostirala zela, eta aurretik asteburu osoa genuela gaiaz patxadaz hitz egin, eta hausnartzeko. Baita Itziar Gandarias Goikoetxearen hitzaldian eta ondorenean ere.

Itziarrek esan digu, bakoitzak kokaleku bat dugula, zapalkuntza ezberdinak gurutzatzen diren kokalekua, eta bertatik, idatzitako gidoi horretatik, irteteko aukerak badaudela. Horretarako, ezinbestekoa da elkarri gure diskriminazioen berri ematea, gero elkarrekin borroka egiteko. Eta, gainera, abantaila dugula euskaldunok, posizio ez hegemoniko bat izateak laguntzen duelako beste diskriminazioak sentitzen. Hortaz, euskara aukera da.

Ezinbestean burua gure antolakuntza espaziora doakit, Tolosaldeko Asanblada Feministara. Nola ari gara? Gure «etxera» gonbidatu bai, baina etxeko sentitzen al gara guztiak? Eta euskarak zer eragin dauka horretan, euskara ulertzen ez duena taldearen parte al da? Euskaraz bizi gara gu, eta, beraz, xuxurlari lanak egiten ditugu b

EIDER OLAZAR TOLOSALDEKO ASANBLADA FEMINISTA

londreski, euskara ulertzen ez duenari momentuan itzuliz; oharretan ideia nagusiak bi hizkuntzetan jartzen ditugu. Baina, nahikoa ote? Bidea nola egin hausnartu beharrean gaude, baina helburua argi izanda: euskara erdigunera ekartzeko apustu argia egin du mugimendu feministak, hori aurrera eramateko tresnak behar dira orain. Gu ari gara, baina politikak aldatzea ezinbestekoa da; gobernu nagusietan dagoen EAJ-PNVk zergatik ez die euskara doakoa, eta ordutegi malguekin eskaintzen herritar guztiei, esaterako? Emakumeen jakokuntza eskoletan bihar bertan has gaitezke horretan.

Hausnartzen eta ideiak geureganatzen joateko hurrengo hitzordua, datorren asteko maingurua izango da. Ziur honek ere ez gaituela epel utziko. Zer da ba, bestela, feminismoa?

ZUZENKETA

Atzoko egunkarian gaizki argitaratu zen honako iritzi zutabea.

SAN MARTIN JAIK SASOIKO HASI DITUZTE

Asteazken iluntzean hasi zituzten San Martin jaiak Amasan; gaur emango diote hasiera jai horiei Alkizan, eta astelehenean, San Martin egunean, Amezketako erretirodunek festa eguna izango dute

Irati Saizar Artola

Amasarrak murgildu dira, dagoeneko, festan. Asteazkenean eman zieten hasiera Martina sorginaren jaitsierarekin, eta gazte egunarekin jarraitu zuten festa giroa, atzo.

Goizean goiz abiatu zuten eguna,

Amasako gazteek. Eguna argitzerako jarrita zuten hitzordua, Amasa kafetegian, eta gosariak emandako indarrarekin, bi taldetan banatuta abiatu ziren etxetik, baserriz baserri, puska biltzera. Goizak aurrera egin ahala, 09:00ak aldera, goiko baserrietan ze biltzanak Iturri-Goxo jatetxean bigarren gosaria egiteko tartea hartu zu-

ten, eta behean ibili zirenek, Itzalpe tabernan egin zuten bigarren mokadu hori.

Eguerdian, Uxo-Toki elkartean bildu ziren bi taldeak bazkarirako, eta arratsaldean, soka dantza eta aureskua egin zituzten plazan. Trikitilariekin erromerian dantzan ibili ondoren, Iturri-Goxo jatetxean hartu zuten afaltzeko tartea, eta luze iraun zuen festa.

Azken urteetan, bitxikeria gisa, Amasako plaza inguruko gunek bat morez apaintzen dute. Aurten, hondartza bihurtu da plazaren zati bat, bere hondar, igerileku, hamaka, soroslearen begiratoki eta guzti.

Asteburu osoa dute aurretik, oraindik, baina festa ez da hor amaituko. Azaroaren 16an, hurrengo larunbatean, izango dute festetako azken eguna. Umeen krosa, herriko gazteen desafioa, herri afari eta bertso saioa gorde dituzte azken egunerako. Jaiei amaiera Martina sorginaren jaitsierarekin emango diote.

Egitaraua, osorik, 25-27 orrietan aurki daiteke.



Trikiti doinuen laguntzaz, nahiz eta eguraldiak ez asko lagundu, giro ederrean igaro zuten eguna amasarrek. I. S.



Goiz erdiko gosaria egin aurretik, plaza inguruko etxeetan egin zituzten azken dantzaldi eta ardo tragoak. I.S.



EGUZKITZA

Abenduaren 1ean
irekitzen dugu sagardotegia

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko:

TEL: 943672613

Usabal Auzoa, Amaro 20400 TOLOSA (GIPUZKOA)



«HERIOTZAREKIKO HARREMANARI BEREZKO IZAERA KENDU DIOGU»

SAIOA OTEGI

PSIKOLOGO ETA PSIKOTERAPEUTA

‘Doluarekin harremanetan’ hitzaldia emango du Saioa Otegi, asteartean. 20:00etan izango da Amezketa kultur etxeko areto nagusian.

Eneritz Maiz Etxarri Amezketa

Kultur Hamabostaldiaren barruan eskainiko du hitzaldia Saioa Otegi. Gai hauek plazan egotea «naturala eta osasungarria» direla dio.

Zehazki zein harreman dugu doluarekin?

Egunerokoan doluarekin bizitzen dugun harremana ez da izaten beste gai edo eduki batzuekin edukitzen duguna. Dolu egoera bat dugun momentu horretan izaten dugu harremana, hau da, ez dugu lantzen edota hitz egiten, non eta, ez den momentuan gertatu

zaigun edo ondokoari gertatu zaion; horren ondorioz hitz egiten dugu. Hau da, ondoren. Hori da guk doluarekin edo galera afektiboekin dugun harremana. Galera afektiboek zer suposatzen duten ere azaldu nahi nuke.

Beraz, doluaz edo heriotzaz, ez dugu hitz egiten.

Agian ez dugu hain naturalizatua gaia, eta egiten dugunean ere, ondo egongo litzateke aztertzea nola egiten dugun. Norbanako bakoitzak ikusi beharko luke heriotzaren inguruan aritzen garenean nola harremanetzen garen, eta gure barnetik nola sentitzen garen eta

horren inguruan guk zein ideia dauzkagun. Edo zein sinesmen ditugun. Bata edo bestea ezberdin harremanetzen dira. Badago orokortasun bat galera batez hitz egiten dugunean; deluak hori esan nahi duelako pixka bat, galera bat. Ez dugu lotzen askotan modu afektiboan, baizik eta gauzei erlazionatua. Niretzat hor dago gakoa. Eta ez bakarrik heriotzari lotuta.

Galera afektiboak kudeatzen ikasi daitekeela diozu, eta gako horiek hitzaldian emango dituzu.

Bai, saiatuko gara gako horiek besteei uzartzeko, eta bakoitzak ikusi dezan egoera horietan bera non kokatzen den. Pixka bat, bakoitzaren emozioak nola dauden, zein sinesmen dituen, bere pentsamenduak nolakoak diren, zein sentsazio eta emozio dituen, nola ukitu eta mugitzen diren. Horiek lirarteke gakoan hasierak.

Gako batzuk aipatzen joango gara eta ea bakoitzari gako horietako zeinek balio dion. Batzuk agian pausu batzuk landuagoak izango dituzte, bizi-penek horra eraman dituztelako, eta beste batzuek ez.

Txikitatik landu beharko litzateke dolua?

Bai, txikitatik landu beharko litzateke beste hainbat gauza bezala. Emozioen kudeaketa edo inteligentzia emozionala gaur egun lantzen ari den moduan. Nik uste, hasi dela txikitatik lantzen doluek edo galerek duten garrantzia. Noski, belaunaldi berrienetan. Geroragoko belaunaldietan galdu egin dugula esango nuke. Ez dago landuta kontzeptualki, taldean... Arbasoek, iraganean, deluak heriotzatik ulertuta beti ere, mahai gainean, herri mailan, familian edo lagun artean, beste modu batera ulertzen eta lantzen zituzten. Gaur egun, desnaturalizatu egin da. Tarte batean gaude, non, hori berreskuratzea osasungarria litzakeela. Denok hori presenteago izateko, eta ezin-negonak eta momentu ezatseginak ez bizitzeko.

Oraindik tabu direla esango zenuke heriotza bera, eta osteko dolua?

Ez zaigu asko gustatzen horri buruz hitz egitea, ez dakit tabu hitzak laguntzen duen. Horrek beste esanahi transzendental batzuk hartzen ditu. Bai heriotza eta bai dolua hausnarketa sakon batzuekin lotzen ditugu, eta uste dut ez dugula horretan ibili nahi izaten.

Pertsona bakoitza ezberdina da, eta emozioak ere bai. Guztientzat baliagarri diren gakoak badira?

Bai. Zorionez pertsona bakoitza ezberdina da, eta emozioak modu ezberdinean kudeatzen ditu, beraz, gakoak bakoitzari momentu batean modu batera balioko dio, eta beste bati, beste era batera. Gizaki garen heinean, denok dauzkagu emozio berdinak, eta emozio berak ditugunez, gakoak kudeatzeko denborak ezberdinak izango dira, baina emozio horien norabidea edo ibilbidea, lehenago edo beranduago egingo da. Azkenean prozesua berdina da, ñabardura askorekin. Ñabardura horiek, orde, gako orokorretik harago doaz. Gako orokorrek bai balio digute denoi. Gero, norbanakoari zehaztu behar zaizkio bereak zeintzuk diren; zailtasunak non dituen.

Zein litzateke gako orokor bat?

Lehenik eta behin zein galera mota den jakin behar da. Galera mota horren arabera ikusi beharko genuke nola kokatu. Zer izan den, aurretik prestatzen joan ahal izan garen, espero ez zitekeen gauza izan den,... Horren arabera, gure garuna eta gure gorputza ezberdin kokatzen da. Nola gauden jakitea da lehenengo gako.

Batzuk erraz hitz egiteko joera dute, eta beste batzuk barrurantz gordetzekoa.

Batzuek ohitura dute kanporantz hitz egiteko, baina horrelako egoeretan, kanpora hitz egiten dutenek ere, askotan, barrura begiratu behar izaten dute. Ez da arazoa barrura edo kanpora, baizik eta kanal horiek zuk itxi egiten dituzun edo ez. Barrura egiten ba-

duzu, eta era berean ixten bazara, itxiera horrek sortuko du eragozpena, hori askatu behar dugunean. Askatze hori da besteekin konpartitzea, besteek zu laguntzen uztea eta barruan dituzun tentsio une horiek kudeatzen lagundua izatea. Kanporakoek berdin. Askok hitz egin edo adierazi dezake, baina ala eta guztiz ere, itxiera horiek eduki ditzake.

Laguntza eskatzen da?

Geroz eta gutxiago. Indibidualizazioa geroz eta handiagoa egiten ari da. Lehen gure hilak ikusi egiten genituen, eta egon egiten ziren etxe batean egun batzuetan. Orain, oso modu ezberdinean egiten da, hildakoa beste toki batean egoten da, gorputza beste era ba-

«Guk gure burua sentitu dezakegu ezberdin, eta ez jakin dolu egoera bat pasatzen ari garenik»

tera manipulatzeko... heriotzarekiko harremanari berezko izaera kendu diogu. Galerekin gauza bera gertatzen zaigu. Galera emozionalak daude, afektiboak, harreman artekoak eta prozesu berdina bizitzen dugu. Baina materialak ere badaude, eta ez da berdina bat edo bestea.

Heriotzari lotutako doluak bakarrik ez ditugu bizitzen.

Bai, eta honelako hitzaldien helburua hori da, doluak ez dela heriotzari bakarrik lotuta bizitzen. Guk galerak bizitzen ditugu, bizitza guztian zehar. Jaiotzen garenetik hiltzen gareneraino. Heriotzak bakarrik ez gaitu era-

mango dolu egoera batera. Bikote harreman bat apurtzeak, animalia bat hiltzeak, lan baten edo etxebizitza baten galerak... egoera ezberdin askok dolu egoera batera eramaten gaituzte konturatu ere egin gabe. Guk gure burua sentitu dezakegu ezberdin, eta ez jakin dolu egoera bat pasatzen ari garenik.

Galera batzuk ezustean iristen dira. Istripu edo suizidio bat izan daiteke. Prest gaude?

Ez. Honelako egoera batean aurrean *shock* egoera izaten da, ukapen egoera. Horrek berak erakusten du ez gaudela prest momentu horretarako. Naturala da guretzat galerak izatea, baina ikusi behar dugu zenbateko malgutasuna daukagun. Bizitzari ematen dizkiogun balore horiek nola ditugun kokatuta, oso zurrinak edo flexibleak diren.

Suizidioaren kasuan, doluaz gain erruduntasun karga bat izaten da?

Bai, karga hori badaukagu. Erruak badu karga bat, eta gure ardura izango balitz moduan hartzen ditugu, baina ezin dugu ezer egin. Alderdi humanistatik lantzen dugu eta nik horri ardura deitzen diot. Azken batean, egoera baten aurrean erantzuteko daukagun gaitasuna da ardura. Ez daukagun guzti hori nola hartzen dugu gurea balitz bezala? Suizidioen kasuan hori oso presente jartzen da. Orain hasi dira gauzak mugitzen, eta geroz eta ahots gehiago zabaltzen ari dira esanez suizidioak hitz egin behar dela. Zabaldu behar dela gizartearen. Tabuak, eta horri buruz ez hitz egiteak eta hori ez lantzeko kontrako egoera dakar. Presente egon beharko lukeen beste gai bat.

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Lauburu Ibarra, Kopako kanporaketa pasatzeko gogoz

Areto futboleko taldeak asteartean jokatu du Belabietan, bigarren mailako Zaragozako Colo Coloren aurka

Imanol García Landa Ibarra

Aurreko denboraldian lortutako bigarren postuak eman zien areto futboleko Lauburu Ibarra taldekoei Kopa jokatzeko aukera. Iaz txapelketa horretan parte hartu zuten lehen aldiz, eta lehen kanporaketa pasa ondoren, bigarren mailako talde baten aurka gutxiagatik galdu zuten. Denboraldi honetan, bere maila bereko San Juanen aurka lehen kanporaketa gainditu ondoren, astearte honetan bigarren mailako Azulejos Moncayo Colo Colo Zaragozako taldea izango dute aurkari. Aurreko urtean sari moduan bezala hartu bazuten ere bigarren mailako talde baten aurka jokatzeari, aurtengoa irabazteko asmoz kantxaratuko dira ibartarrak.

«Ilusio handiarekin eta lehiatzeko gogoz gaude», esan du Aitzol Oiarbide Lauburu Ibarra kapitainak. «Aurtengorako taldea sinestuta dago ahalegin handi bat eginez gero, gai izango ginatekeela irabazteko, eta ondorioz, lehen mailako talde baten aurka jokatzeko aukera izan. Aurreko urtekoarekin alderatuz, ikusten dugu ez gaudela hain urrun». Hain justu, partidaren bila joateko gakoetako bat ideia horri eustea izango da: «Ez dugu pentsatu behar beste taldea askoz gehiago denik, eta nik uste dut gure maila emanez gero aukerak izango ditugula, eta aukera horiek aprobetxatzea izango da helburua».

Orain dela bi urte lortu zuen bigarren mailarako igoera Colo Colo taldeak eta ordura arte Laubururen multzo berean zegoen. Ez zaie, beraz, arrotza egiten aurkaria Lauburukoei. «Taldea bikaina da, joko aldetik oso ikusgarria, erasoko jokoa dutena, eta aurten taldea indartu egin dute zenbait jokalarirekin. Bigarren mailako goleatzaileren



Lauburu Ibarra taldeko kideak. ATARIA

sailkapenean dauden bi jokalaririk taldekoak dira», esan du Oiarbidek. «Asko sufritu dezakegu, baina guk gure aukerei eutsiko diegu».

Iazkoan Madrilgo Rivas taldearen aurka jokatu zuten kanporaketa, eta 1-2 galdu zuten. «Partida oso gogorra izan zen», gogoan du Oiarbidek. «Fisikoki gu baino gehiago ziren, baina azken unera arte egon ginen sartuta partidaren. Lortutako emaitzarekin jabetu ginen ez daudela bigarren mailakoak hain urrutik. Partida batera edozer gertatu daiteke, eta orduan sinestea falta izan zitzaigun, eta oraingo honetan ea lortzen dugun».

Kanporaketa 20:00etan hasiko da eta zaletuei deialdi berezia egin dietek klubetik partidara joateko. «Aukera polita da jendearentzako partida eder bat ikusteko, eta asko eskertuko genuke zaleen laguntza kanporaketa aurrera ateratzeko», esan du Oiarbidek. «Espero dugu iaz gertatu zen moduan, harmailak beteta egotea. Denok gozatu genuen iazkoan eta ea aurtengoan ere gauza bera gertatzen den. Belabietara etortzen den jendea areto futbola asko gustatzen zaio, eta horrelako partida baten aurrean beti erantzun izan du eta beti bete izan dira harmai-

lak. Espero dugu guk talde bezala erantzutea zaletuek emandako animoei».

Liga ahaztu gabe

Kopako txapelketak bere berezitasuna du, baina Lauburu Ibarra taldekoei argi dute beraien interes nagusia liga dela. Asteburuan, gainera, partida oso berezia dute, aurkari hirugarren postuan dagoen Guardo Deporcyl taldea izango baitute Belabietan. «Partida gogorra izango da. Oso talde indartsua da, jokalaria oso onekin, eta partida zaila izango da», esan du Oiarbidek. «Ligako aurreko postuetan bukatzeko hautagaietako bat da. Ondo hasi da ligan, hirugarren doa, eta nik uste dut bukeran ere postu horietan izango dela». Partida larunbatean izango da, 18:30ean hasita.

Liga oso parekatua dagoela dio kapitainak: «Lehenengo sei taldeak oso gertu gaude elkarrengandik, eta ikusten da partida batera edozeinen aurka galdu edo irabazi egin dezakezula. Denboraldiaurrea bikaina egin genuen, baina ligan hasieran pixka bat kostatu egin zaigu tonua hartzea. Azken bi partidekin taldea konfiantzarekin dago eta disfrutatzen ari gara».

Irene Caminosek ez du lortu finalera pasatzea

Erredakzioa Tolosa

Ez da posible izan. Txinako Chengdu herrian jokatzeko ari diren Munduko Biketrial Txapelketaren finalerdia jokatu zuen atzo Irene Caminos tolosarrak, eta zazpigarren amaitu zuen. Lehenengo sei postuek lortzen zuten finalera joateko txartela.

Oso puntu gutxiren faltan geratu zen Caminos finalerako sailkapena

lortzeko, hamar besterik ez. 400 puntu lortu zituen finalerdian, eta bere aurretik seigarren postuan sailkatu zen Alzbeta Pecinkova txekiarrek 410 puntu jaso zituen.

Finalera pasatzeko helburuarekin joan zen Txinara Caminos, baina berak esan moduan, errespetu gehiagotzian finalerdiari finalari baino, eta azkenean ez du lortu larunbateko finale-rako txartela.

Elorri-Aldapa saskibaloi kluba aurkeztuko dute

Erredakzioa Alegia

Alegian Elorri-Aldapa saskibaloi kluba martxan jarri dute eta bihar egingo dute aurkezpen ofiziala. Lehenengo urterako gizonezkoen senior taldea osatzea lortu dute. Bestalde, emakumezkoen taldea hurrengo urtera begira ere lanean ari dela azaldu dute. Horrez gain, hil honetan kadeteekin ere lanean hasiko dira.

Aurkezpena Elorri frontoian egingo dute, bihar, 16:00etan hasita, senior gizonezkoen taldearen ligako partida izango dela aprobetxatuta. 16:15ean kamiseten banaketa egingo diote herriko kirolari nabarmenei. 16:30ean taldeen beroketa hasiko da, 16:50ean jokalarien aurkezpena egingo dute, eta 17:00etan hasiko da Elorri-Aldapa eta Mekalki Aloanamendi taldeen arteko partida.



TXULOBICO PILOTARIEK HASI DUTE DENBORALDIA

Guztira 40 neska-mutilek hasi dute denboraldia Adunako Txulobi Pilota Eskolan: palaz 17 ume ariko dira eta esku pilotaz, berriz, 23. Denak elkarrekin, familia argazkia atera dute urtero moduan. ATARIA



Laso eta Jaka, pilota aukeraketan. A. IMAZ

Erik Jakak gaur erabakiko du igandean jokatu edo ez

Asier Imaz Lizartza

Lehen mailako Lau eta Erdiko txapelketaren hirugarren eta laugarren posturako partida jokatzekoa da igande honetan, Tolosako Beotibar pilotalekuan, Erik Jaka lizartzarraren eta Unai Lasoren artekoa. Atzo goizean aukeratu zituzten pilotak.

Ezkerreko eskua ukiturik dauka Jakak. Ezkurdiaren aurkako partida minbera amaitu zuen, eta gaur erabakiko du jokatzeko moduan egongo den edo ez. Goizean entrenamendua egingo du eta hor hartuko du erabakia. Pilota aukeraketa egiterakoan, Jaka eskuinarekin aritu da pilota kolpatzen.





'On egin, egin on' kanpainaren materiala. ATARIA

Benetan 'on' egiten ari gara?

Egunero jaten dugu. Eta egunero janaria zakarrontzira botatzen dugu. Gure kontsumo-modeloak zaborra sortzera eramaten gaitu, etengabe. Adituek diote hondakinetera botatzen ditugun elikagaiak herrialde bat balira, Txina eta AEBen ondoren, CO₂ isurketen errudun den hirugarren herrialdea izango ginatela. Eta horrek zer suposatzen du? Hondakinak kudeaketa egoki baten beharra; gaur egun, nazioarteko funtsezko kezketako bat.

Europako Batasunak jotzen du ekoiztutako janariaren % 20 alferrik galtzen dela European eta guztiaren %53 etxeetan galtzen dela. Datu hauek ikusita, Tolosaldea Garatzenek, Tolosaldeko Mankomunitatea eta Gipuz-

koako Foru Aldundiaren laguntzarekin *On egin, egin on* ekimena martxan jarri du. Froga gisa Tolosa Gourmet, Tolosaldeko turismo gastronomikoa sustatzeko klubeko kide diren jatetxe eta tabernekin elkarlanean eta Tolosaldeko herritarrei janari hondakinak inguruan jabetu eta erabakiak hartzeko baliabideak eskainiz.

Tolosaldeko jatetxe eta taberna hauetan «on egitea» benetan on egitea izan dadin sustatu nahi dugu; batetik, hondakin organikoa gutxitzeko baina, bestetik, bezero eta jabe, hondakinak inguruan erantzukizuna eta kontzientzia hartu dezaten zabaltzen joateko. Besteak beste, Tolosa Gourmet klubeko jatetxe eta tabernetan tuper biodegradagarriak banatuko dira, bezeroak

platerean uzten duen bere janaria etxera eramateko aukera izateaz gain, janaria eramate hori plastikorik gabe egin dadin. Tuper hauek plastiko arrunta diruditen arren, PLA material %100 konpostagarriarekin eta %100 biodegradatzearekin eginik daude. Eta kanpainan parte hartzen ez duten jatetxe eta tabernetan ere zure janaria eska dezakezu, janari hondakina gutxituko baita horrela ere.

Izan ere Tolosaldean guztiok sortzen dugun janari hondakina gutxitzeaz gain kontzientzia ere piztu nahi da, jasangarritasunaz gain, janariari balorea emanez eta zergatik ez, melankolia pixka batekin gure amonen kozinatze-ko eraz ere oroitzuz. On egitean, benetan egin dezagun on!



Agur t'erdi

Bizitzak, noizbehinka, espero ez dituzun leihoak irekitzen dizkizu. Beti atsegin izan dut irakurtzea, irakurtzen nituen hitzak idazten zituztenak mi-rasteraino. Halako batean, niri egokitu zait tes-tuaren beste aldean dagoena izateko aukera eta, ondorioz, zalantza: eskaintza onartu ala ez? Nire hitzak irakurleen begitara (eta kritikara) aurkeztu ala foro txikitian ahoz el-karbanatzen jarraitu? Paper zuriaren sindromea pairatze-ko aukera izan edo egungo erosotasunean jarraitu? Erron-ka berriari ekin edo denbora libre gehiagoz gozatu? Pilula urdina ala gorria? Hautatu nuena bistan duzue.

Idaztea ere asko gustatu izan zait betidanik, baina nire irakurlegoa ez da oso zabala izan: familia, lagunak, irakas-leak, ikaskideak, zientzia komunitateko kideak, ikasleak... Gertuko jendea edota nire testuak lan kontuengatik irakurriko zituztenak. Sekula ez hautu propioz edo konpromiso profesional edo afektiborik gabe, neurri batean. Behin ere ez nire argazkia duen eta herrikideen buzoian utzitako paper zati batean. Gaur arte, behinik behin, ez.

Baina foro ireki batean idatzi ahal izateko be-harrezkoa da idazgairen bat izatea (gaurko tes-tuak eduki handirik ez duen arren). Isaac Asi-mov biokimikari handiak zientzia fikzio testu bi-kainak publikatzen zituen egunkarietan bere denbora librean. Imanol Landa txikiak nahikoa

lana badu noizean behin zutabe bat idatzita eta, beraz, hobe du dakien zerbaiti buruz idazten badu esperimentu handirik gabe. Baina lanbidez esperimentatzailea naizen aldetik, nire esperimentu-gai diren bateriei buruz arituko natzaizue. Horixe bainaiz ni, Cidetec fundazioan profesio-nalki baterien ikerketan (ez musika instrumentuen ikerke-tan, energia biltegitratze sistemetan baizik) jarduten duen Alegian jaotako eta Tolosan bizi den ibartar bat. Eta horri buruz idatziko dut hemen: bateriei buruz. ATARIAK ematen didan leiho honetan energia biltegitratze mota ezberdinak, historia, kuriositateak, aplikazioak eta halakoak azaltzen saiatuko naiz.

Modu erakargarrian idazten saiatuko naiz, baina hitzok irakurriz zure betazalen pisua handitzen doala naba-ritzen baduzu, irakurle, ez larritu; ziurrenik nire erruz izango da. Izan ere, zeinen zaila zaigun hainbat ikertzaile gure ikerketa-gaia formazio zientifikoa ez duen jendeari azaltzea! Hala bada, esadazu kaletik ikusten banauzu -edo Internet bidez- eta esadazu beldurrik gabe zertan dudana hobetzeko beharra.

Nahikoa dela iruditzen zait. Lehen eguna da, aurkezpen eguna, eta ez du merezi azken paragra-foan irakurlearen burua elektrodo, elektrolito edo-ta bestelako kontzeptuekin nahasten hasteak. Ba-terien inguruan interesa baduzu, ongi-etorria izan zaitez nire zutabera!



**IMANOL LANDA
MEDRANO**
CIDETEC
FUNDAZIOKO
IKERTZAILEA



MENDEA LEHIAREN ETA FESTAREN ARTEAN KORRIKA

14

Ehun urte bete ditu azken urteetan sona handia hartu duen Behobia-Donostia lasterketak. Korrikalari ugariaren helburua izaten da hori amaitzea edo denbora bat egitea, eta tartean, asko dira eskualdekoak ere. Horietako batzuekin egon da **TOLOSALDEKO ATARIA**.

Irati Urdaleta Lete

Behobia-Donostia lasterketa egitea. Hori da milaka eta milaka korrikalarik azken ehun urtean bere buruari jarritako erronka nagusienetakoa. Hogei kilometro, baina ez hori bakarrik, baita, urduritasunak, pozak, momentu hunkigarriak eta tristurak ere.

Mende bat atzera egin beharra dago guzti horren sorburura iristeko. 1919ko martxoaren 30ean antolatu zuen lehen aldiz Behobia-Donostia lasterketa CD Fortuna taldeak. 22 korrikalari atera ziren irteera puntutik eta hamalauk lortu zuten helmuga zeharkatzea. Guztiak gizonak ziren, izan ere, 60 urte beranduago arte emakumeek ez zuten parte hartu. Bitxikeria bezala, korrikalari bakoitzaren ondoan txirrindulari bat joango zela erabaki zuten, laguntza behar bazuen ere.

Lasterketa hori antolatzen jarraitzea erabaki zuten, baina hainbat gorabehera gainditu behar izan zituen orain ezaguna den Behobia izatera iritsi arte. 1919tik 1926ra urtero egin zen, 1936an berreskuratu zuten eta 1963ra arte erreleboka egin zuten korrika. Gaur egungo formatua, berriaz, 1979an finkatu zuten, eta ordutik urtero egin da.

Ehun urtean aldaketa ugari jasan ditu lasterketak,

ibilbidetik hasi eta parte hartzaileetarako. 1979an berriro egitea erabaki zutenean, ibilbidea aldatu egin behar izan zuten, alternatibarik ez zegoenez, N1 errepidea ezin zelako hainbeste denboran itxita eduki. Duela bost urte berriro ere jatorrizko ibilbidea berreskuratzearen aldeko apustua egin zen. Parte hartzaileei dagokienez, izugarri hazi da kopurua. Igande honetarako, zehazki, 33.379 korrikalarik eman dute izena, eta tartean, asko eskualdekoak dira. Iazko datuei erreparatuta, Tolosaldeko 404 korrikalarik lortu zuten helmugako marra zeharkatzea.

Horietako zenbait emakumeak izan ziren, baina oraindik urrun daude CD Fortunak 2025erako jarritako erronkatik: korrikalarien erdiak emakumeak izatea. Aurten %25,7 izatea lortu dute, baina lan ugari dago oraindik egiteko. Horretarako, esaterako, emakumeek entrenatzeko taldeak sortu dituzte. Horietako bat asteen bi edo hiru aldiz elkartzen da Tolosako Berazubi estadioan, eta bakoitzak dituen helburuen arabera entrenamenduak egiten dituzte. Jarraitu beharreko ibilbidea zehaztuta dago, beraz, eta batzuetan korrika eta hurrena oinez, helburua lortzeko bidea urratzen ari dira.



IOANA ARBILLAGA

«JENDEAK ESATEN DUENEAN
BERE LEHEN LASTERKETA
BEHOBIA IZANGO DELA,
GAIZKI IRUDITZEN ZAIT»

Bukatzea helburutzat hartuta hasi zen Ioana Arbillaga (Tolosa, 1981) Behobia egiten, eta lehen aldi hura ez du ahazten: «Lehenengo Behobia beste modu batera bizitzen duzu, eta badauka zer-bait berezia». Ordutik, lasterketa bakoitzean helburu desberdina jarri dio bere buruari: «Bakarrik joan izan naiz, marka egiteko; azkarrago joateko, eraman izan naute; eta beste norbaiti laguntzen ere joan izan naiz». Arbillagarentzat, entrenamendu kopuruak zehazten du urte bakoitzeko helburua. «Festa handi bat da, baina atzean zenbakiak ere badaude».

Behobia egin behar duen eguna «izugarria» da Arbillagarentzat. «Ez da karrera polita, baina hunkigarria da. Dagoen jendetzarekin ez zara ausartzen oinez joatera», dio. Urtero berezia izan arren, argi du zein den inoiz ahaztuko ez duena: «Behobiaren bezperan jakin nuen haurdun nengoela. Senarrari esan nion elkarrekin egingo genuela, eta metan aita izango zela esatea pentsatzen nuen, baina hain gaizki ikusi ninduen, bidean esan behar izan nion. Susto ederra hartu zuen».

Arbillagak argi du Behobia denentzako lasterketa bat dela, baina entrenatuta joan beharra dagoela: «Jendeak esaten duenean bere lehen lasterketa Behobia izango dela, gaizki iruditzen zait». Hoge kilometro lasterka egiteko gai izan behar dela dio: «Ez da martxa bat, lasterketa bat baizik, eta entrenatuta joan beharra dago». Arbillagak nabarmendu du batzuetan Behobiako denborari begiratzen zaiola korrikalari baten maila zehazteko: «Behobia ondo egiten baduzu korrikalari ona zarela dirudi, baina lasterketetan ateratzen ere jakin egin behar duzu». Ziur dago Behobian atera aurretik prozesu bat egin behar dela, hau da lasterketa motzagoetatik hasi behar dela. Emakume ugari hori egiten dutela dio, eta horregatik parte hartzea ere gero eta handiagoa dela: «Askok Lilatoiarekin hasten dira eta gero, Behobia iritsi daitezke». Emakumeak gero eta gehiago izan daitezen, denbora beharrezkoa dela iruditzen zaio. «Emakumea kirol denetan sartzen ari da, baina hasteari beldurra kendu behar zaio», gaineratu du.

Arbillaga ere aurtengo lasterketari begira jarrita dago aspalditik. Lagun batek lehen urtea du, eta harekin egingo du. Beraz, lortutako denborengatik dortsal gorriarekin ateratzeko aukera badauka ere, zuriarekin irtingo da, eta gozatzea izango du helburutzat: «Zure buruarekin lehiatu behar duzu, baina sano, hau joko bat delako, eta gozatu egin behar da».

MANOLI ARTEAGA

«NI EZ NAIZ HAINBESTE ZENBAKIEKIN GERATZEN, SENTSAZIOEKIN BAIZIK»

Lagun batek animatuta. Horrela hasi zen Manoli Arteaga (Tolosa, 1964) Behobia-Donostia lasterketan parte hartzen. 2013an egin zuen lehengoz, eta «sentsazio oso onekin» geratu zenez, igandean ere bertan izango da. Lasterketa hori egitea «entrenatzeko arrazoi bat» da tolosarrarentzat. Gainera, egunean bertan, «festa giro ederra» egoten dela ziurtatzen du: «Zenbat jendeak animatzen duen ikustea bakarrik izugarria da». Berazubini elkartzeko den emakume talde batean entrenatzen du, eta Behobia soilik ez, korrika egitea bera ere garrantzitsua da Arteagarentzat: «Egunerokotasunetik ateratzeko balio dit. Erronka txikiak jartzen ditugu, eta horiek betetzeak asetuta uzten nau».

Behobia askorentzat festa baldin bada ere, beste batzuentzat sufrimendu bihurtzen da. Hori gertatu ez dadin, bakoitzak bere burua ezagutzea gakoa dela dio: «Beroarekin ez naiz ona eta nire buruari motelago joateko esaten diot. Hori niretzat buruarekin jokatzeko da, baita erretiratzeko jakitea ere». Ondo entrenatuta egon arren, bada jendea lasterketako urduritasunak gain hartzen diona. «Ezagutzen dut jendea korrikarako gaitasuna duena, baina lasterketa baino pare bat aste lehenago gaixotu egiten direnak presioarengatik».

Arteagak badu bereziki gogoratzen duen Behobia bat. Izan ere, etxean zeuzkan zamarra guztiak bota zituen, eta egun horretarako, Emausera joan zen bigarren eskuko bat erostera. «Bi taila handiagoa zen, eta *glamour* handirik gabe joan nintzen», dio barrez.

Serioago jarrita, Behobian korrika egitera iristerako hainbat oztopo gainditu behar izan dituela iruditzen zaio, emakume izateagatik soilik: «40 urte baino gehiago nitue-nean hasi nintzen korrika, eta beti joaten nintzen jendeak zer esango zuenaren beldurrez». Hasieran, beraren kontua soilik zela pentsatzen bazuen ere, gerora konturatu da orokorra dela: «Orain, konplexu horiek gainditu ditut, baina taldean hitz egitekoan ikusten da besteek ere bazeuzkate-la». Emakumeen parte hartzea handitzeko, berriz, komunikazioa beharrezkoa iruditzen zaio: «Gurea bezalako taldeak ezagutarazteko kanpainak egin beharko lirateke».

Aurtengo lasterketari begira, gustura dago. Izan ere, orain arte dortsal zuria eraman izan dute beti, baina aurtengo urdina izango dute, denbora hobeak egin dituztelako. Hala ere, postuari ez dio hainbesteko garrantzirik ematen: «Ni ez naiz hainbeste zenbakiekin geratzen, sentsazioekin baizik».





GEMA AMUNDARAIN

«BEHOBIA MODAN DAGO,
ETA JENDEAK ESATEN DU
EDOZEINEK EGIN DEZAKEELA,
BAINA HOGEI KILOMETRO
DIRA»

Gema Amundarainek (Itsasondo, 1958) ez zuen uste inoiz Behobia-Donostia egiteko gai izango zenik, baina aurten zazpigarrena izango du. «Haurrak txikiak zirenean, senarra eta koinatua ateratzen ziren. Gu animatzera joaten ginen, baina niri ez zitzaidan burutik pasa ere egiten ateratzea». Lehengo aldi hura berezia izan zela dio. Urtebete lehenago hasi zen entrenatzen eta arra sentitu zuen taldekideek Behobia egiteko zeukaten ilusioarengatik. Ondo gogoan du bere lehen aldia: «Nire Behobiarik politena izan da, magikoa. Lehenengoak badu xarma bat gainontzekoek ez daukatena».

Manoli Arteagarekin batera emakume talde batean entrenatzen du Tolosan. «Guretzat korrika egitea da, baina sozializatzeko, terapia egiteko... ere balio digu». Amundaraini ere Behobian ateratzeko beharrezkoa iruditzen zaio entrenatzea: «Gaur egun, modan dago, eta jendeak esaten du edozeinek egin dezakeela, baina hogeikilometro dira».

Behobian parte hartzen daraman urteek ikasteko ere balio izan diote. «Lehenengo urtean oso azkar joaten zara, jendeak eramaten zaituelako, baina gelditzen ikasi behar duzu». Gainera, orain gai da bakarrik korrika egiteko ere: «Nik beti jendearekin ibili izan naiz korrika, baina ikasi dut bakarrik egiten ere, eta hori niretzako lorpen handia da».

Bera bezala gero eta gehiago dira Behobian parte hartzen duten emakumeak, eta horrek ere lasterketa «indartu» egin duela iruditzen zaio Amundaraini. Horrela izaten jarraitu dezan zer egin behar den ere argi dauka: «Korrikarako emakumeen taldeak sortu beharko litzateke. Behobiari bakarrik begiratzen diote, baina urte osora begira egin beharko litzateke lana». Azkenik, Amundarainek emakumeak animatu nahi ditu korrika egitera: «Jendeak korrika ezagutzen duenean, kateatuta geratzen da».

JUAN MARI GARIN

«JENDEARI IRUDITZEN ZAIO BEHOBIA EGITEN EZ BADU, ZERBAIT FALTA ZAIOLA»

Juan Mari Garin (Zizurkil, 1958) da Behobiako beste korrikalari beteranoetako bat. 1980an egin zuen lehen aldiz eta irabazi egin zuen, baita 1988an eta 1990ean ere. Azken bost urtean lehiaketak utzita baditu ere, ondo gogoan ditu egindako balentriak. «Irabazitako Behobiak atzo balira bezala gogoratzen ditut». Garaipen horiek eskuratzeko, argi du ez dagoela sekreturik: «Entrenatu eta kilometroak sartu behar dira».

Lorpenak ahazteko ez baditu ere, «gozatzea» dela garrantzitsuena dio, festa handi bat delako. Hala ere, korrikalari batzuek Behobiarekin bere buruari apustua egiten dietela azaldu du, eta bete beharreko helburutzat hartzen dutela. «Jendeari iruditzen zaio Behobia ez badu egiten, zerbait falta zaiola, baina badaude lasterketa gehiago ere», nabarmendu du.

Gaur egun, korrika egitea beste modu batera baloratzen dela ziur du Garinek, eta aldaketak ere asko izan direla: «1.800 korrikalari izaten ginen gu. Janaria, arropak, osasuna zaintzeko modua... dena aldatu da azken 40 urtean». Beraien garaian ateratzen ziren emakumeak ere gogoan ditu. «Gu hasi ginenean emakume oso gutxi izaten ziren, eta ausartak ziren, ez zegoelako oso ondo ikusita emakumeek korrika egitea». Aurrerantzean ere, gero eta emakume gehiagok egingo dutela korrika iruditzen zaio: «Hemendik urte batzuetara, agian, gizonak baino gehiago izango dira». Izan ere, bere esanetan, jada bide bat eginda dago: «Uste dut laguntza handirik gabe erakutsiko dela lasterketa hau ez dela gizonentzat bakarrik, eta emakumeek ere berdin-berdin egin dezakete-la».

Garinek, berriz, aurtengo Behobia errepede bazterretik gozatzeko asmoa dauka: «Aurten ez dut korrikarik egingo. Egun hori beste era batera gozatuko dut, korrikalariak animatzen».





PEIO GARIN

«GURETZAT GARRANTZITSUAGOA ZEN GIPUZKOAKO TXAPELDUNA IZATEA BEHOBIA IRABAZTEA BAINO»

19

Peio Garin (Zizurkil, 1961) da Behobiaren eboluzioa ikusi duen lasterkarietako bat. 400 edo 500 korrikalari inguruk parte hartzen zuen garaian hasi zen ateratzen, anaiarekin batera. Punta-puntan ibiltzen zen, eta 1982an eta 1991n garaipena Zizurkilera eramatea lortu zuen, nahiz eta zailtasunei aurre egin behar izan zien: «Krosean eta pistan ibiltzen ginenez, entrenatzaileak ez zigun ateratzen uzten».

Behobia irabazitakoan «emozioa» sentitzen bazuen ere, ez zion hainbesteko garrantzirik ematen: «Orain fama handia dauka, baina orduan ez. Guretzat garrantzitsuagoa zen Gipuzkoako txapelduna izatea Behobia irabaztea baino». Arropek eta oinetakoek ere izugarrizko bilakaera izan dute: «Azokan erositako mila pezetako zapatilekin ateratzen ginen». Gainera, Behobia egiteko moduan ere desberdintasunak ikusten ditu Garinek: «Gu bakoitza bere marka egitera joaten ginen. Orain, berriaz, askok taldean ere egiten dute». Aldaketa horien artean emakumeen partaidetza ere ez dago aipatu gabe uzterik. «Gu ibiltzen ginenean, Donostian bertan ere hiru edo lau emakume soilik ikusten ziren korrika», ziurtatu du.

Garinek ere argi dauka Behobia ez dela egin behar korrika hasi bezain laster: «Pixkanaka hasi beharra dago, eta prestatzeko ere proba asko daude». Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaio aurretik ondo prestatuta joatea. Hala ere, eta garai batean atletismoari ordu ugari eskainitakoa bada ere, argi du beste gauza batzuei ere begiratu behar zaiela: «Bizitzan, dena ez da kirola».



ZAINTZAREN KRISIA

Etxeko langile migratzaileen egoeraren inguruko ikerketa plazaratu du SOS Arrazakeriak elkarteak; 108 migratzaile eta 30 ez-migratzailearen lagina jaso dute

Eneritz Maiz Etxarri

Gipuzkoako SOS Arrazakeriak eta Tolosaldea Gartzzeneko Migrazio sailak elkarlanean egin dute etxeko langile migratzaileen egoera sozio-laborala eta pairatzen dituzten diskriminazioak ikertzeko lana. Maitane Arnosoa eta Jone Urionaguena SOS Arrazakeriak taldeko kideek egin dute ikerketa, eta proiektua Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizikidetzeta eta Giza Eskubideetako zuzendaritzaren laguntzaz garatu dute.

Tolosako kultur etxean egin zuten aurkezpena, eta sei emakume migratzaileen bizipenak biltzen dituen *Chica seria y responsable* dokumentala ikusteko aukera izan zen. Ikerketarako 108 emakume jatorri atzeritarrekoak izan dituzte, eta horietatik %95,5a jatorri latinoamerikarrekoak izan dira, eta kasu gutxi batzuk izan dituzte Europa ekialdekoak. Horiez gain, 30 emakume ez-migratzaile elkarriketatu dituzte.

Jone Urionaguenak «beldurra» aipatu du. «Beldurra

dute emakume langileek jendaurrean agertzeko, eta beraien bizipenak kontatzeko». Laginerako bai, baina esaterako, «martxoaren 8an jendaurrean ez zuten agertu nahi izan. Lana galtzeko beldurra dute. Beraiek kaleratzea oso merkea da, eta inongo azalpenik gabe kaleratu ditzakete».

Piramide demografikoa dagoeneko iraulita dagoela azpimarratu du eta zaintza krisi handi batean sartua dagoela. Haurrak heztea edo gaixotasunak dituztenen zaintza kolektibizatu egin direla dio, eta espazio handi eta publiko batean zentralizatu direnean, profesionalizatu egin direla azpimarratu du Urionaguenak, eta «atentzio hobe bat ematen zaie». Aldiz, zaintza lana zergatik dugun horren sartua zahartzaroan etxean eman behar dela, arlo pribatuan, dio. Egoera berriez pentsatzera eraman nahi dute gizartea, «ulertu dezaket pertsona nagusi batek bere etxetik atera nahi ez izatea, eta izango ditu bere ondorio positiboak eta negatiboak. Baina bilatu behar ditugu bide berriak, zaintza ere, kolektiboki bideragarria eta sostengarria izateko».

«ZAINZA PRIBATUA IZATEN MANTENTZEN DEN BITARTEAN, EGIA DA, EMAKUMEON GAIN ERORIKO DELA ZAINZA, ETA ARE GEHIAGO EMAKUME MIGRATZAILEENGAN»

JONE URIONAGUENA
SOS ARRAZAKERIAK-EKO KIDEA

21

E. Maiz

Jone Urionaguena Gipuzkoako SOS Arrazakeriak taldeko kidea da. Elkarreak berak Tolosaldea Garatzeneko Migrazio sailarekin elkarlanean landu duen ikerketa aletu du.

Nolatan egin duzue ikerketa hau?

Sos Arrazakeriak elkartean duela

urte dezentetik aholkulari-

tza bulegoak ditugu, diskriminazio kasuen aurrean salaketak iristen direnean abokatuen bitartez aurrera eramateko. Atzeritarren legea bera diskriminazio egoera kontsideratzen dugu. Paperen tramitazioarekin ere laguntza eskaintzen dugu. Kontua da, duela bost bat urtetik, etxeko langile asko etortzen direla diskriminazio kasuekin edota atzeritarren legearen kasu ezberdinekin; bizitzen ari ziren egoerak, edota lan eta bizi baldintzen egoerak kontatzen zizkiguten edota erakutsiarazten zizkiguten. Testuinguru

«Sektorea oso isolatua dago, ez dago espazio komun batean, etxeetan daude, bakarrik daude eta beraien lan baldintzak edota emozioak ezin dituzte inorekin konpartitu»

horretan konturatu ginen oso antzekoak zirela euren artean, eta pentsatu genuen oso ideia ona izan zitekeela zerbait egitea guzti honekin; «hau gertatzen ari da» eta «modu honetan gertatzen ari da» esateko izango genuela moduren bat. Euskal Herrian edo Gipuzkoan egindako azterketak duela urte batzuetakoak dira,

eta guk emakume migratzaile hauekin zer gertatzen den zehaztu nahi izan dugu.

Gipuzkoako hainbat herritako emakume migratzaileak elkarriketatu dituzue. Zer da jaso duzuen?

Sektorea berez da prekariora, eta baldintzak ez dira betetzen, ez kasu batean eta ez bestean ere.

Lagintzat emakume migratzaileak izan ditugu, baina baita ez-migratzaileak ere. 10etik 4k ez ditu oporrak, 10etik ia 5ek ez ditu ordu osagarri ordainduak, gauez lan egiten den hori ere ez da pagatzen, eta egunez dagoen emakume berak egiten du lan, hau da, %73,4aren kasua da. Zifra asalda-

garriak dira. Ez dute lan hori kobratzen. Gainera, asteburuak eta jai egunak ere 10etik 6k,... Datu gordinak dira eta oso altuak. Erregularizazioa oso zaila dela ikusi dugu sektore honetan; bai ikerketan eta baita errealitatean ere. Bien kasuan da, baina emakume migratzaileak beti okerrago daude.

Datu hauek dira bistaratu edo azaleratu nahi izan dituzuenak?

Hau azaleratu nahi izan dugu, eta Sos Arrazakeriak sartu da honetan, zergatia oso argia delako: badakigu sektorea oso prekarioa dela, sektore feminizatu dela eta erakutsi egin nahi genuen. Eta nola erakutsi jatorriak eragina duela guzti honetan. Testigantzetan, jatorriaren faktore edo ardatz hori oso pontente ikusten da, eta oso garrantzitsua da diskriminaziorako; eta bai lan baldintzetan edo jasotzen dituzten erasoetan. Erasoak ere jaso ahal izan ditugu-eta.

Jatorriak eragin nabarmena du, beraz.

Oso nabarmena da, bai.

Konparaketa egiteko bertako 30 emakume langile ere elkarrizketatu dituzue. Alderik bada?

Badago, eta deigarriena erasoen kontua izan da. Erasoak emakume ez-migratzaileek eta emakume migratzaileek pairatzen dituzte. Emakume ez-migratzaileen kasuan, laurdenak maitatzeko proposamenak jasan ditu, baina emakume migratzaileen kasuan, %37,2a da jasan duena. Irainak emakume migratzaileek jaso dituzte, eta ez-migratzaileek ere bai, baina %20 gehiago da ez-migratzaileen kasuan. Jaramonik ez egitearen kasuan ere ezberdintasuna altua da. Mehatxuak ere erregistratu ditugu, eta emakume ez-migratzaileen kasuan %8,3 bat da, baina emakume migratzaileen kasuan, 10etik 4k jaso dituzte. Eraso fisikoak eta ukituak ez ditugu erregistratu emakume ez-migratzaileetan, baina migratzaileetan laurden batek pairatu ditu eraso fisikoak, eta 10etik 2k ukituak.

Gogorra izango zen emakume hauekin elkarrizketak egitea.

Gogorra izan da, baina hilabeteen behin elkartzeko taldea dugunez, ez zaigu arrotza egin. Jada harreman bat dago gure artean, eta elkarrizketa hauek egiteko ere, beti txoko ezagunak bilatu ditugu, kafe baten bueltan. Asko zaindu dugu ingurua badakigulako hau ez dela erraza kontatzea, eta konfiantzazko klima hori beharrezkoa izan da.

Lasai hitz egin dute bizitakoa kontatzeko, hau da, barruak askatu dituzte?

Askatu dituzte, eta taldean elkartzean, esaterako, lan baldintzen inguruan hitz egin dute, kanpainak egitea proposatu dute, askatu dira, bakoitzari zer gertatu zaion kontatuz. Behar bat dago. Behar handi bat dago bakoitzari zer gertatzen zaion kontatzeko. Entzuna izateko eta taldean konpartitzeko. Azkenean sektore hau ez dago enpresa edo fabrika batean, ez dago espazio komun batean. Oso isolatua dago, etxeetan dago, bakarrik daude eta beraien lan



baldintza egoerak edota emozioak ezin dituzte inorekin konpartitu.

Bakardadea bizi dutela esango zenuke?

Bai. Bakardade oso handia bizi dute. Imajinatu etxe batean ari zarela lanean 24 ordutan, kasu askotan, eta kakotx artean etxe horretako parte zara, baina ez zara parte. Batzuetan familia sentitzen zara, edo beste askotan oso garbi uzten dizute, edo zure buruari oso garbi uzten diozu hori ez dela zure etxea. Askotan ez daukazulako ezta gela propio bat bertan.

EAEn egun 115.559 pertsonak laguntza behar dutela adierazi duzue. Asko da, ezta?

Asko da, eta gainera laguntza hori goraka doa. Populazioaren piramidea iraulita dago jadanik. Jende oso nagusia daukagu, eta jende hori gero eta nagusiago egiten ari da. Maria Angeles Duran antropologoari entzun nion esaten, espainiar estatuan, oraintxe bertan, 65 urte betetzen direnetik bizitza esperantza 19,4 urte direla. Horrek esan nahi du mendeko horiek areagotzeaz gain, luzatu egingo direla denboran. Krisi handi bat daukagu, eta momentuz ez daukagu baliabiderik ondo erantzuteko.

Zuek erakunde publikoen betebeharrak emakume migratzaileen gain jartzen ari direla salatu duzue.

Bai. Denok dakigu zaintza azkenean emakumeon gain



erortzen dela. Kasu hauetan oso garbi ikusten dugu hitz egiten ari garen zifrentzako ez dagoela zaintza publikoaren inguruko benetako lanketa bat. Ekonomikoki ere zenbat familiek sostenga dezakete, esaterako, beraien pensioekin? Irudikatu mendeko pertsona batek pagatu behar duela bere zaintza; ezingo lioke horri aurre egin gaur egun sistema publikoan dauden baliabideekin. Egon badaude, baina ez dira nahikoak. Orduan zer gertatzen da? Pribatizatu egiten da zaintza. Interesak dauden edo ez, badaude hainbat teoria. Zaintza pribatua izaten mantentzen den bitartean, egia da, emakumeon gain eroriko dela zaintza, eta are gehiago emakume migratzaileengan; guk kontratatu ahal izateko pertsona bat, guk irabazten dugunaren azpitik.

Zein da bizitzen duten lan baldintza, kontratu edo soldaten egoera?

Lan baldintzen kasuan, legeak markatzen dituen lan orduak baino askoz ere gehiago egiten dituzte. Etxeko langileen zerbitzua sistema berezi baten barruan dago, sistema generalaren barruan. 40 orduko lan astea daukate, guztion moduan, baina aukera dute lan egiten duten etxebizitzan gaua emateko; eta aldi berean, presentziazko orduak deitzen diren 20 ordu dituzte astean. 24 ordu etxe batean bazaude, nola markatu dezakezu zein den zure lan ordua

edota presentziazkoa? Mugak ez dira oso argiak, eta are guxtiago ezagutzen ez duzunean legedia. Lanaldi izugarriekin topatu gara. Izan ditugu pertsonak 100dik gora ordu lan egiten dutenak.

Soldaten kasuan, 2019a baino lehen jaso genituen datu guztiak, eta aldatu egingo lirateke datuak soldata minimoa 1.050 eurora igo delako. Justu, %20 igo da soldata, hori baino lehen egin genituen galdeketak, eta soilik %12,7ak gaitzen zuen 1.000 euroko soldata. Gehiengoa 700 eta 800 euro artean zeuden.

Kontratuei dagokionean, berriz, migratzaileetan zentratu gara, eta estereotipo edo uste faltsu batekin topatu gara. Emakume migratzaile hauek ezkutukoa edo beltza den ekonomia bultzatzen dutela, kontraturik gabe daudelako. Argi utzi behar da emakume migratzaile hauek ez dutela beraien interesen artean kontraturik gabe lan egitearena. Azken batean, paperak lortu ahal izateko edo beraien egoera administratiboa erregularizatzeko behar-beharrezkoa dute lan kontratu bat. Egia da, eta horrela da atzerriarren legea, lehen hiru urteetan, zure bitartekoetatik atera behar duzu bizitza. Eta erakutsi behar duzu hiru urtez erroldatuta egon zarela edo bertan bizi izan zarela. Gero, sustraitze sistemaren bitartez, lehenengo erresidentzia txartela lortu ahal izateko. Hiru urte horiek pasatzean

emakume hauek kontratu horren beharra dute. Estereotipoa deseraikitze bidean, emakume ez-migratzaileak dira, gehienbat, kontraturik gabe lan egiten dutenak. Lan honen bitartez, familiako ekonomiari ekarpen bat egiten diote, eta ez da sostengu. Aldiz, emakume migratzaileen kasuan, askotan, etxeko lanaren bidez lortzen duten soldata hori da familia osoaren sostengua, eta baita beraien jatorrizko herrialdekoarena ere.

Datu edo egoera guzti horiek uste duzu ezkutuan mantendu nahi izan direla?

Nik uste dut ezjakintasun handia dagoela, edonorengan. Nik neronek, duela urte batzuk, ez neukanean ideia handirik, nire familiako mendekoren bat zaintzeko norbait kontratatu behar izan banu, hau guztia jakin gabe, posible da, nik ere, horrelako zerbait egin izana. Honekin esan nahi dudana da, ezjakintasun handia dagoela orokorrean gizar-tean kontratazio hauen inguruan. Askotan langileek beraiek ere ez dakite zein eskubide dituzten. Ez da erraza honetaz jabetzea, eta orain ari da gehiago ikusarazten.

Etxean langile migratzaileak dutenekin hitz egin ahal izan duzue?

Denetik izan dugu. Muga txikia da, eta zaintza lana beti izan da emakumeek maitasunetik egin duten zerbait. Lana da berez, baina gure begietatik lantzat ikustea, eta benetan zaintza lana kontsideratzea oraindik eman gabe dagoen prozesu bat da edo bukatu gabe dago. Askotan, hor, mugak txikiak izaten dira, eta jarre-oso oso ezberdinak egon daitezke, bai kontratatzaileen aldetik, eta baita langilearen aldetik ere. Elkarbizitza izan daiteke hor sortzen dena, eta eman behar da etxe batean elkarrekin bizitzean. Gu gehien kezkatzen gaituena da, zein puntutaraino normalizatuak dauden diskriminazio egoera batzuk edota lanaren testuinguruan ematen diren eraso batzuk. Hauek naturalizatzek dakarren arriskuak kezkatzen gaitu, eta datu hauekin topo egin, eta halare pertsonak ez duela kontsideratzen egoera kaxkar batean dagoela. Soldata edo denbora librearen aipua egingo du, baina beste hainbat egoeraz ez da kontziente edo ez du botatzen arazo bat balitz bezala; ukitu bat, adibidez, normalizatua du.

Aurrerapausorik eman da?

Orain, kolektibizatzean ari dira kontziente egiten; beraien istorioa beste aho batzuetatik entzutean. Guztiok egin de-

zakegun prozesua da, taldean elkartu eta arazo baten gainean hitz egitean.

Emakume migratzaileen izenean aldarrikapen batzuk ere plazaratu dituzue.

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu instituzioek duten pape-ra. Kanpaina publikoak egitean, benetan ikusarazteko zein den egoera eta emakume hauek zein baldintzatan ari diren lanean. Baldintza horiek ez direla bidezkoak, eta azkenean beraiek langilek direla eta zaintzaren edo maitasun horren izenean denak ez duela balio. Zaintza lana dela, eta hori da gure lehenengo ideia. Hor instituzioek erantzukizun handia dute, eta hau gizarteratzeko eta helarazteko kanpaina handia egin beharra daukate. Bide batez, kontratatzaileei zein eskubide errespetatu behar dituzten azaltzea. Zein eskubide dituzten etxeko langileek, nola izan behar diren beraien lanaldiak, *interna* kontratua ez dela existitzen, hori jardunaldi oso bat litzateke; gaua bertan igarotzeko eskubidearekin eta 20 orduko presentziarekin, baina ezin duzu 24 ordutan pertsona bat zure etxean eduki lanean. Hori ez da legala. Zaintza lana denean, eta 24 ordutan mendekoa den edo atentzioa behar duen pertsona batek, gutxienez, euren lan baldintzak errespetatzeko hiru pertsona izan behar ditu kontratatuta.

Eta gaur egun hori posible da familia batean?
Hori da kontua, eta hori da beste aldea. Guk hor botatzen diegu erantzukizuna. Zaintza publiko egitea, eta hor dago arazoaz jabetzearen garrantzia. Pentsio bat kobratzen duen pertsonak, nahiz eta aldundiak ematen dizkion laguntzak izan, ezingo litzuke kontratu bateko baldintzak errespetatu. Ez da posible eta ez da bideragarria. Eta pentsioekin daukagun krisiarekin, are eta gehiago. Emakumeon bizi esperantza altuagoa da, eta nortzuk ditugu pentsio okerragoak? Emakumeok. Beraz, nortzuk egongo dira zaindu gabe? Gauza askotan jabe-

zten joan beharra daukagu, eta instituzioei dauzkaten erantzukizunak eskatu.

Zer lortu nahiko zenukete zuek ikerketa honekin?

Emakumea, langilea eta guk ardatza, migratzaile izatean jarri dugu. Hori da ikusarazi nahi duguna. Zaintzaren kontua ikuspegi makro batetik hartu nahi izan dugu, eta noski, emakume hauek jarraituko dute lana izaten zaintza lanean. Behar dugulako eta gure piramide demografikoa dena delako. Guztion ardura dela ikusarazi nahi dugu, eta ez emakumeona. Instituzioek beraien ardura dute, familiek, kontratatzaileek, eta era berean, langileak ahaldundu nahi ditugu beraien eskubideen jakintzetan.

«Mendeko horiek areagotzeaz gain, luzatu egingo dira denboran. Krisi handi bat daukagu, eta momentuz ez daukagu baliabiderik ondo erantzuteko»

«Estereotipoa deseraikitze bidean, emakume ez-migratzaileak dira, gehienbat, kontraturik gabe lan egiten dutenak»

«Zaintza lana denean, eta 24 ordutan mendekoa den edo atentzioa behar duen pertsona batek, gutxienez, euren lan baldintzak errespetatzeko hiru pertsona izan behar ditu kontratatuta»

Agenda

OSTIRALA AZAROAK 8

ALKIZA

SANMARTINAK

17:30. Haur jolasak.

19:00. Umeen pintxo lehiaketa frontoian.

19:30. Patata tortilla lehiaketa.

22:30. Mus txapelketa Ostatu jatetxean.

ALTZO

ANTZERKIA

20:30. *Konplizeak*, Ester Povedaren zuzendaritzapean. Batzarremuñon.

AMASA

SANMARTINAK

17:00–19:00. Puzgarriak pilotalekuan.

Ondoren. Txokolate beroa.

20:00. Amasako XXVIII. Bakailao lehiaketa Iturri–Goxo jatetxean.

23:30. Triki–poteoa Debalde eta Txaskok alaiturik.

AMEZKETA

KULTUR HAMABOSTALDIA

17:00. Ierabizkar errota martxan ikusteko aukera izango da.

20:00. Talo jatea frontoian, DBH 4koen eskutik.

GAZTELU

KULTUR ASTEBURUA

20:00. Pintxo dastaketa Erroizpe azpiko kirol eta kultur elkartearen (bakoitzak hamarna pintxo eraman behar ditu).

Segidan. Orkestrina Band Jazpana taldearen kontzertua.

IKAZTEGIETA

HITZALDIA

19:30. *Nola bizi hondakinik sortu gabe* hitzaldia, Maddalen Diazen eskutik.

IRURA

BIZIKLETA ASTEBURUA

19:00. Mahai ingurua txirrindularitzari buruz, Garazi Erostarbe eta Markel Irizarrek. Kultur etxean.

TOLOSA

KIROL JARDUNALDIA

15:30. Tolosa Kirol Medikuntzaren 30. urteurrena. Julio Calleja, Valentin Rocandio, Angelo Bizjak eta Iñaki Arratibelen hitzaldiak. Doako sarrera baina aldeztu.



BI GURPILEN GAINEAN JARTZEKO GONBITA

Ostirala eta larunbata beteko ditu Iruran Bizikleta Asteburuak. Garazi Erostarbek eta Markel Irizarrek mahai ingurua osatuko dute ostiralean eta larunbatean bestalde, praktikatzeko aukera izango da: ginkana, tailer mekanikoak, jokoak... ATARIA

aurretik izena eman behar da:
info@tolosakirolmedikuntza.eus
helbidean. Casino elkartearen.

ANTZERKIA

20:30. *Erradikalak ginen* antzezlan. Feminismoa zeharlerrotzat hartuta eta umorez. Ane Labaka eta Beatriz Egizabal. Topic-en.

23:00. Txikiren bakarriketak. 40 urte eta aldapan behera niek... 3 tabernan.

KONTZERTUA

22:30. Los Hollister. Sarrera: 8 euro. Bonberenean.

LARUNBATA AZAROAK 9

ALEGIA

AURKEZPENA

16:00. Elorri Aldapa Klubaren aurkezpena

16:15. Kamiseten banaketa herriko kirolari aipatuenei.

16:30. Taldeen beroketa.

16:50. Jokalarien aurkezpena.

17:00. Elorri Aldapa vs Mekalki Aloña Mendi K.E partida.

ALKIZA

SANMARTINAK

11:00. Jesus Tapia arkeologoaren eskutik

historiaurrea ezagutzeko lantegia izango da.

18:00. Lau eta Erdiko finala.

21:00. Afaria Ostatu jatetxean.

Ondoren. Kontzertu akustikoa Maider Zabalegi, Urbil Artola eta Gorka Urraren eskutik.

AMASA

SANMARTINAK

12:00. Poni eta txahalak, Leizarranen eskutik.

17:30. I. Eskualdeko Sagardo Probaketa pilotalekuan.

23:30. Dantzaldia Irtazar taldearen eskutik.

ABALTZISKETA

GAZTAINA JATEA

22:00. Txalburu eskolako guraso elkarteak antolatutako herritar guztientzat, pilotalekuan.

AMEZKETA

KULTUR HAMABOSTALDIA

12:00. Hiru eta erdiko txapelketaren finala frontoi zaharrean (eguraldi txarra egiten badu, Altuna Anaia frontoian izango da).

14:00. Herriko produktuekin osatutako bazkaria (babarrunak bere sakramentuekin) eta euskal abestien kantaldia Zazpi Iturri elkartearen.

Ondoren. Mutiko alaiakekin kantatu poteoa.

Agenda

BALIARRAIN

UDAZKENKULTURALA

19:00. Lopetedi baserrian, Mikel Gorosabel bakarlaría kontzertuan. EH Sukarra, Lorelei, Norton Klub eta bakarlaría moduan sorturiko abestiekín.

GAZTELU

KULTURASTEUBURUA

10:30. Ibilaldía Lartera Luis del Barrio historialariarekin, Burdín Aroko hilobiak ezagutzera.

15:30. Serigrafía tailerra.

17:00. Txokolate jatea.

18:00. Kantukantoi. Ipuín kontalari saioa eskolan haurrentzat eta helduentzat. Olentzeroren jaia: nondik dator eta nora goaz kafe tertulía, Olentzeroren Basoa ekimeneko lagunekín.

21:00. Kantu afaría.

IKAZTEGIETA

TAILERRA

10:00. Josteko tailerra: botoi, kremailera, bajuak, zuloak... nola josi? Materiala bakoitzak berea eraman beharko du josteko tailerrera. Udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

IRURA

BIZIKLETA ATEBURUA

16:00. Bizikletarekin jarduerak. Ginkana, tailer mekanikoak, jokoak, kaskoa nola jarri, zulatutako kamarak konpondu. HHtik DBHra. Loatz plaza.

TOLOSA

TAILERRA

11:00. Barazki txotxongilo tailerra. Familia osoari zuzendurik. Doan. Izena emateko: pedagogia@cittolosa.com / 943 650414. Topic-en.

PAILAZOAK

17:00. Txirri, Mirri eta Txiribiton.

Xaguxarroski Kondea. Leidor antzokian.

ANTZERKIA

17:30. *Hemendik Parisera.* Bea

Larrañagaren eskutik. Amaroško auzo etxean.

ZIZURKIL

GAZTAINAJATEA

21:00. Herriguneko Zentroan. Aldez aurretik izena eman behar da, Zentroan edo Iriarten.

IGANDEA AZAROAK 10

ALKIZA

SANMARTINAK

10:00. Meza.

Ondoren. Hamaiketako Ostatu jatetxean.

17:30. Eskoba txapelketa.

AMASA

SANMARTINAK

18:00. Amasako gazteen eta Uxo-Toki elkartearen arteko herri-kirolak pilotalekuan.

ASTEASU

PAILAZOAK

17:00. Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Lan berriaren aurkezpena: *Bizi dantza!* Usarrabi kiroldegian.

GAZTELU

KULTURASTEUBURUA

10:30. Euskal Barrokensemble taldearen kontzertua elizan.

11:30. Azokaren irekiera herriko dantzariekin.

13:30. Erretirodunen bazkaria.

TOLOSA

MUSIKALA

12:30. *Jan dezagun.* Katrin Iturralde, musika zuzendari gisara; Izaro Maguregi, eszena zuzendari lanetan; Irungo Belaskoenea Eskolako Abesbatza; Amasa-Villabonako Eresargi Txiki Abesbatza; Andoingo Udál Musika Eskola Abesbatza; Ordiziako Oroith Txiki Abesbatza eta Badia Pasaiko Antzerki Eskola. Leidor antzokian.

KONTZERTUA

18:00. Flavio Banterlaren pop mistikoa, 3 tabernan.

ASTELEHENA AZAROAK 11



ADUNA

KULTURASTEUBURUA

19:00. Solasaldia: 40/10: herri baten *taupadak*. Felipe Uriarte eta Edurne Pasaban mendizaleak, Ramon Olasagasti bideratzailearekin. Elizan.

A10



Espainiako hauteskunderen emaitzak igandean ataria.eus webgunean

AMASA

SANMARTINAK

10:30. Meza Nagusia.

11:30. Herri-kirolak, bertsolariek eta trikitilariak alaiturik.

AMEZKETA

ERRETIRODUNEN EGUNA

11:30. Meza nagusia San Martinen.

Ondoren. Bertsolari eta trikitilarien saio labur bat.

14:00. Bazkaria Txindoki (Errekalde) jatetxean, Bertsolari eta trikitilariak ere bertan izango dira.

16:00. Haurrentzat jolasak frontoian eta ondoren merienda.



TOLOSA

LIBURU AURKEZPENA

18:30. *Once flores rojas.* Amores del siglo XXI. Adriana de Arriba. Doako sarrera. Kultur etxean.

ERAKUSKETAK

BURATTINIEN MUNDU MIRESGARRIA

Topic (Tolosa). Bisita ordutegia: 10:00–13:00 eta 16:00–19:00 (asteazkenean, astelehenetan itxita). 10:00–14:00 eta 15:00–19:00 (asteburu eta jai egunetan). Italiarren txotxongiloen tradizioak, herrialde horretako historia politikoa eta sozialagatik, hain bereziak, banatuak eta lokalismoz beteak, Europako pertsonaien eta maskaren aniztasuna aurkezten du. Erakusketa 70 lanez osatuta dago, eta eskularruek teknika gain beste teknika batzuk erabiltzen dituzten txotxongiloak ere badaude. Materialari dagokionez, italiarren kolezio pribatu eta publiko ezberdineko material artistikoak dira.



KOLLAGE ERAKUSKETA

Jubilatu-enea taberna (Alegia). Kurage Kolektiboa. *Hobeto tximeletak ahoan, hienak bihotzean baino.*

JOSE IGNACIO AGORRETA

Aranburu jauregia (Tolosa). Iruñean bertan bizi eta lan egiten duen artista da Agorreta. Betidanik autodidakta, bere obra irudi garaikide baten inguruan mugitu da. Bokazio poetikoarekin, bere obretan jorratu dituen gaiak egunerokoak eta hurbilekoak izan dira, baina irudikapen naturalista lortu beharrean, mekanismo emozionalak izan dira bere helburua beti. Ikustor duak: 17:30–20:30, igande, astelehen eta jaiegunetan izan ezik.

XANTIESNAOLA

Plazida Otaño (Zizurkil). Xanti Esnaolaren lanen erakusketa. Azaroaren 29a bitarte.

ZINEMA

'LA TRINCHERA INFINITA'

Ostirala (21:30), larunbata (20:30), igandea (19:30) eta astelehena (20:30).

Bonudunek + 4,05 euro ordaindu beharko dute.

Larunbatekoa ezohiko emanaldia izango da Jon Garaño, Aitor Arregi eta Jose Mari Goenaga zuzendariekin aurkezpen eta solasaldia. Astelehenean ikuslearen eguna izango da.

Leidor antzokia, Tolosa.



'JOKER'

Larunbata (19:30 eta 22:00), igandea (19:30) eta astelehena (21:00).

Gurea aretoa, Amasa-Villabona.



'POKEMON. PIKACHU DETEKTIBEA'

Igandea (17:00). Haur zinea.

Leidor antzokia, Tolosa.



'ABOMINABLE'

Igandea (17:00).

Gurea antzokia, Amasa-Villabona.



saridunak

Atarikideentzat **hiru sarrera pare** ditugu

Txirri, Mirri eta Txiribiton 'Xaguxarroski'
emanaldia ikusteko

• Leire Otaegi (Anoeta) • Eneko Garmendia (Baliarrain) • Ainhoa Arregi (Berastegi)

Azaroak 9, 17:00etan, Leidor aretoan.

Ataria jarriko da harremanetan



Hauteskundeak



IÑIGO GOROSTARZU

Nabarmena da Espainiako politikaren koloka, nahiz eta beran gertatzen dena ez izugarri inporta, betiko mezuz ikusten ditut betiko berak mokoka, eta beraien nora ez horrek nola gaitzaken oztopa, ondo pentsatu behar genuke non entregatu pelota, Kontua ez baita zeini bozkatu baizik eta zeintzuk bota.



Doinua

Arratsalde on eta muxubat

Haurrei galdetuko bagenie?

Azken aldian lanetik atera eta gorputza astintzeko asmoz kirola egiteko ohitura hartu dut. Ostiralero kiroldegira bi-dean txundituta gelditzen naiz kirol eskoletara joaten den haur kopurua- rekin. Bada aldiz, ehun- ka haur horiek baino gehiago harritzen nauen zerbait: kirol eremuan haurrei begira egoten den guraso eta familia kide kopurua.

Kirol eskolak haurren gozamenara bideratuta- ko espazio askeak izaten dira, arau sinple batzuez gidatzen direnak. Hau- rrek jolaserako, kirol be-

rri bat ezagutzeko eta beste pertsona batzuekin elkar eragiteko duten espazio horretan behatzaileak egotea haurren kalterako dela guztiz sinistuta nago.

Badakit ezin direla guraso guztiak zaku berdinean sartu, baina bertan egote soila haurren portaera asalda-

tzen du, nahiz eta askotan konturatu gabe izan. Eta ez soilik gaztetxoena, baita bertako hezitzaile eta entrena- tzaileena ere; nola sentitu zaitezke eroso zure lana auzian jarri dezaketen begiez inguratuta egonda? Hori gutxi

balitz, guraso edo familia kide horietatik asko *zale- lo* bihurtzen dira, euren haurrei «pasa!, bota!, ko- rri...» eta horrelakoak oihukatuz (sinesgaitza).

Azkeneko jarrera ho- rien atzean haurrengan proiektatu nahi izaten den irudia egon daiteke, haurra «etorkizuneko proiektu» moduan ikus- tea, eta hori, ezabatu be-

harreko zerbait da. Haurra pertsona osoa da eta gauza asko onartu beharra zaizkio, baita batzuetan guretzat de- serosoak diren milaka gauza. Kirol es- koletan aritzen diren gaztetxoei, iritzi eta proposamen egile izanda, euren aisia behatzen dutenei buruz galdetu- ko bagenie?



IÑIGO IRURZUN
IRAKASLEA

Hori gutxi balitz, guraso edo familia kide horietatik asko *zale- lo* bihurtzen dira, euren haurrei «pasa!, bota!, korri...» eta horrelakoak oihukatuz (sinesgaitza)

KOMIKIA NAIARA DELGADO



Antzinakoa gaurkoturik

Zenbat aldiz pentsatu ote dut berritu eta eraberritu aditzaren desberdintasunaz? Azken boladan eta kasu askotan, Tolosako merkataritzarako lokalak berritzen direnean edonolako negozioa abiatzeko, guztiz berritzen ari dira, ez da aurreko negozioaren arrastorik ere uzten.

Xarma duten lokalak, dendak, tabernak nire ustetan mantendu beharko lirateke. Historiaren zatitxo txikiak bezalakoak dira, izan ginenaren arrastoak dira eta horrelakoak, mantendu beharko genituzke. Modernoaren itxura oso ondo dago; eta ulergarria da oraingo negozio batek, oraingo itxura eduki nahi izatea, baina betidaniko xarma eta nortasuna galtzen ari dira, gaur egun. Baina badira salbuespenak, bere garaian, Rondilla kaleko fruta-denda oso ezaguna itxi zenean,



NATALIA GARMENDIA
MUSIKARIA

eta beste negozio bat hasi zutenean, eraberritu zuten baina elementu batzuk mantendu zituzten, ateak adibidez, garaiko egurra mantendu zuten.

Eta azkena adibide ona ere izan daiteke, Korreo kaleko botika oso famatua eraberritu dute eta nire ustez, bete-betean asmatu dute. Nahiz eta egitura aldatu duten, antzinako egurrak, tresnak eta horrelakoak mantendu dituzte, eta ez hori bakarrik; erakutsi egiten dituzte jendek ikus ditzan, urteetan zehar erabili dituzten tramankuluak beraien botika fabrikatzeko

begi-bistan jarri dituzte. Eta betiko xarma gorde dute, baita nortasuna eta bere garaiko irudia ere. Baina gauden denborara egokitu dira, bere garaian izan zirenaren esentzia galdu gabe. Berriro diot, bete-betean asmatu dute.

Historiaren zatitxo txikiak bezalakoak dira, izan ginenaren arrastoak dira eta horrelakoak, mantendu beharko genituzke

EGURALDIA



OSTIRALA

Negu bete-beteko eguraldia izango dugu gaurkoan. Ipar mendebaldeko haize zarrak eta goietan sartuko den fronte batek euri zaparrada mardulak utziko ditu egun guztian zehar. Ekaitza jotzen duenean kazkabarra ere bota dezake. Tenperaturak gehienez 8-9 gradutara iritsiko dira. Elur mailak ere behera egingo du, 800 metrotara jaitsiz. Arratsaldean, 1.000-1.100 metrotara igoko da.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Goiz partean hai-zeak hego-mendebaldera egingo

du. Euritarako joera izango du baina ez ostiralean bezainbestekoa. Arratsaldean lasaialditxo bat izango dugu, nahiz eta zer edo zer bustiko duen. Ondoren, ordea, egunaren amaieran, haizeak ipar-mendebaldera egingo du, zakartu egingo da eta berriz ere euritarako joera hartuko du zaparrada mardulekin. Tenperaturek zertxobait irabazi egingo dute eta 10-11 gradutara igoko dira egunaren erdiko orduetan. Elur mailak ere zertxobait gora egingo du, 1.200-1.300 metrotan geratuz.

IGANDEA

Beste fronte bat iritsiko da eta goietan aire hotza sartuko zaigu. Horrekin berriz ere tenperaturak hoztu egingo zaizkigu eta 10 gradutara iristea kosta egingo zaie. Elur mailak ere behera egingo du eta egunean zehar 800-900 metrotan ere botako du. Euri zaparradak oso mardulak izango dira eta egunaren bigarren zatian litro asko pilatuko zaizkigu.

ASTELEHENA

Badirudi lasaitu egingo zaigula eguraldia. Tenperatura hotzak izango dira baina 10 gradutik pasatzea lortuko dute.

IRAGARKI LABURRAK



LANESKAINITZA

Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Telefonoa: 688888207. Deitu: 13:00-15:00 artean.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko: 943 65 56 95, ataria@ataria.eus edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldekin.

12:30. Elkarriketap (Usoa Zumeta).

17:30. Gaurkoan Tolosaldekin.

21:30. Gaurkoan Tolosaldekin.

22:00. Hiri baratzea.

22:30. 51. Tolosako Abesbatza Lehiaketa (Profanoa).

23:30. Gaurkoan Tolosaldekin.

FARMAZIAK



AZAROAK 8, OSTIRALA IBARRA

Egunekoa. Leire Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. Telefonoa: 943 67 32 74.

AZAROAK 9, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

AZAROAK 10, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Marta Olarreaga Aranburu. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.

AZAROAK 11, ASTELEHENA TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Lurdes Azpiroz Galarza
Amarotz auzunea, 9.
Tel.: 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza Eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, agenda, solasaldi politikoa Ander Leon, Garbiñe Blurrun eta Onintza Lasarekin, Tolomendi landa garapen agentziaren tartea, errezetan atala Aintzane Artolarekin, Idoia Apaolaza psikopedagogoa eta Galtzaundiren Hitzez Hitz.

12:00. Entzuteko jaioak Musika tartea.

16:00. Zebrabidea Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Kantazgora Tolosaldeko musikariaren proposamenekin osatutako musika saioa.

21:00. Mingaina Txulora Erotikari buruzko saioa Jon Imanol Etxabe sexologoarekin.

LARUNBATA

10:00. Trikiti musika.

12:00. Hauspo artean Trikitiari buruzko saioa Eneritz Aulestiarekin.

16:00. Gure txokotik Elkarriketen tartea. Gaurkoan, Agurtzane Belauntzararekin.

18:00. Entzuteko jaioak Musika tartea.

21:00. Aire biziak Musika saioa, Joxi Ubedarekin.

IGANDEA

10:00. Asteko saioen onena.

14:00. Hari Naizela Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

16:00. Entzuteko jaioak Musika tartea.

18:00. Kantazgora Tolosaldeko musikariaren proposamenekin osatutako musika saioa.

20:00. Entzuteko jaioak Musika tartea.

21:00. Mingaina Txulora Erotikari buruzko saioa Jon Imanol Etxabe sexologoarekin.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza Eguneko berriak, agenda, asteburuari begirada, Postalak bidaiarien tartea, Patxadaz eginiko elkarriketak.

12:00. Entzuteko jaioak Musika tartea.

16:00. Zebrabidea Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Hauspo artean Trikitiari buruzko saioa Eneritz Aulestiarekin.

107.6 fm
www.ataria.eus

OSTIRALA
08



IGANDEA
10



LARUNBATA
09



ASTELEHENA
11



Hemen zure iragarkia joan daiteke

publi@ataria.eus • 661 678 818

2^{mó}
graduatu
erreflexuen
aurkako lenteekin

99€

*Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira*



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren
ezadgarriak. Ezingo da beste eskaintza
batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



 **Mertxe
Aizpurua**

 **Jon
Iñarritu**

 **Gorka
Elejabarrieta**



Bozkatu

ehbildu

Erabaki

BAIETZ!

JAN TOLOSALDEA BIDEO LABURREN LEHIAKETA

INFORMAZIO GUZTIA:
tolomendi.eus eta ataria.eus

ZER KOLORE
DU BERTAKOAK?



PARTE HARTZEKO EPEA:
urriaren 15etik azaroaren 10era

SARIAK:

DBH 1-2: KIDE GUZTIENTZAT ZUMARDIAKO URTEKO BAZKIDETZA
ETA IKASTARO BATEAN MATRIKULA.

DBH 3-4: KIDE GUZTIENTZAT ZUMARDIAKO URTEKO BAZKIDETZA
ETA BI IKASTAROTAN MATRIKULA.

BATXILERRA 1-2: KIDE GUZTIENTZAT BIZI BIZIKIK ESKAINITAKO
ABENTURAZ BETETAKO ASTEBURU PASA.

PUBLIKOAREN SARIA: BERTAKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO
OTARRA ETA EKOIZLEAREN USTIATEGIRA BISITA.